

**ERABAKIA, 2018ko MAIATZAREN 21ekoa, UPV/EHUko IRAKASLE-
IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko
IRAKASLEEN ORDEZKOAK EGITEKO ZERRENDETAN KIDE GEHIAGO
SARTZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAN ONARTU ETA EZ ONARTUEN BEHIN
BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEKO DENA.**

EGITEZKO AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2018ko martxoaren 22ko erabakiaren bidez deialdi publikoa egin zen ordezkioak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko.

Bigarrena.- Aipaturiko lehiaketan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2018ko apirilaren 19an amaitu zen. Ondoren, irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen 2018ko apirilaren 20ko erabakiaren bidez eskariak aurkezteko epea luzatu zen 2018ko apirilaren 23arte.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri kasu honetan: Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea (EAO urriaren 2a); 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (2004ko martxoaren 12ko EHAA); Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendu-arloak eta egitura eta eginkizunen eskuordetzea zehazten dituen Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko EHAA); 2011ko martxoaren 11ko UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen ebazpena, irakasle ordezkoak egiteko izengaien zerrendak gestionatzeko arautegia onartzen dena (2011ko martxoaren 25eko EHAA); 2018ko martxoaren 22ko erabakia, deialdia egin zuena, eta aplikatu beharreko gainerako arau orokorrak.

Bigarrena.- UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskuordetzeaz, erabaki hau emateko, Zuzendaritza Kontseiluaren egitura eta funtzionamendu-arloak eta eginkizunen eskuordetzea zehazten dituen Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren babesean.

Hirugarrena.- 2018ko martxoaren 22ko erabakiaren bidez deialdia egin zen ordezkioak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko. Erabaki horretan jasota dago eskariak aurkezteko epea amaiturik, Unibertsitateko Errektoreak onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrenda argitaratuko duela Deialdi eta Lehiaketa Atalean, campusetako errektoreordetzetan eta unibertsitateko webgunean, eta hori izango dela interesdunei jakinarazpena egiteko modua. Bestalde, zehaztuta dago 10 eguneko epea irekiko dela, zerrenda hori webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, errakuntzak zuzentzeko, bai eta zerrenda horren kontrako erreklamazioak aurkezteko ere.

Hori guztia kontuan hartuta, eta nire eskumenak erabiliz, honakoa:

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea ordezkioak egiteko zerrendetan kide gehiago sartzeko lehiaketa publikoan onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrenda (2018ko martxoaren 22ko erabakiaren bidez deitu zen).

Bigarrena.- Erabaki hau argitaratzea Deialdi eta Lehiaketa Ataleko eta campusetako errektoreordetzeko iragarki-oholetan, eta unibertsitateko webgunean.

Hirugarrena.- Onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrendaren kontra erreklamazioak jartzeko edo zuzenketak egiteko epea 2018ko ekainaren 4an amaituko da (egun hori barne).

Leioan, 2018ko maiatzaren 21ean.

ERREKTOREA

Eskumena eskuordetuta (errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, 2017/02/03ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Izptua.: Inmaculada Guerricagoitia Marina